HIZKUNTZA PROIEKTUAREN HELBURUAK ZEHAZTEA ETA IDAZTEA

Hizkuntza Proiektuaren helburuak zehazteko, Hezkuntza Proiektuan jasotakoak erabiliko dira eta, horiekin batera, garapen faseko 9. tresnan bildu ditugun emaitzak. Bi dokumentu horien edukiaren azterketa lagungarria izango da Hizkuntza Proiektuaren helburuak hautatzeko eta idazteko gogoetan.

Honako prozedura hau har daiteke kontuan:

1. Hezkuntza Proiektuaren helburuen artean, hizkuntzei lotutakoak aukeratu. Haiek abiapuntu, Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren helburu orokorrak idatzi.

2. *Ikastetxearen lehentasunezko jarduera-esparruak* tresnan (9.a) jasotako zerrenda aztertu. Jarduera-esparru horietatik abiatuta, Hizkuntza Proiektuaren helburu zehatzak idatzi.

3. Ikastetxearen ibilbidearen eta inguruaren arabera, helburu horiez gain, Hizkuntza Proiektuaren batzordeak beste batzuk ere proposa ditzake, egoki iritziz gero.

4. Helburuak idatzi eta gero, egiaztatu ea koherenteak diren Hezkuntza Proiektuak eta legedi-markoak zehaztutakoekin.